

# HARREMAN SAREAK LEHIATZEN DIRA OLINPIADETAN



## Itsaso Zubiria Etxeberria

Hernaniko Gazte Olinpiadek aurtengoan apiriletik ekainera, San Joanetara arteko egitaraua bete dute. Guztira 500 bat gaztek hartu du parte 2014ko jokoetan eta adinean anitza izan da: 16 urteko partehartzaitatik 34 urte artekora. Gazteen arteko harreman sareak sortzea da egitasmoaren helburua; festa eredu desberdin bati lotua, parekidea, partehartzailea, zirikatzailea...

Askotan entzun dugu oso koadrilakoak garela eta ez ditugula hain erraz egiten harremanak beste koadriletako jendearekin. Jarrera hori apurtzeko asmoz sortu ziren lehenengo olinpiadak, eta gaurko jokoetan oraindik ere helburua bera da. Badirudi urte olinpikoak izaten direnean gazteen arteko harremanak sendotzen direla eta erlazio berriak sortzen direla. Olinpiadetan zehar indartzen joaten dira harremanak, baina bukatu eta denbora batera erlazio horietako askok behera egiten dute berriz. Halere, lehenengo harriak jarrita geratzen dira eta harresi sendoa eraikitzeko pauso txiki bat emana dago.

Gazteen arteko harremanak sendotzearen helburua festa giroan lortu nahi da eta hor dator bigarren erronka: zer nolako jai eredia bultzatu nahi dugu herriko gazteen artean? Bultzatu nahi den jai eredia ez da soilik ondo pasatzean oinarritzen; antolaketa, elkertasunean, aldarrikapenean sinesten duten gazteak hezte da helburua.

Hernaniko Gazte Olinpiadak bide horretan tresna bat izateko jaio ziren, eta oraindik horretan dihardute lanean.

### JOKOEN ANTOLAKETA.

Parte hartzen duten herriko gazte guztien artean antolatzen dira jokoak. Azken hiru olinpiadak bi urtean behin egin dira, eta bakoitza antolatzeko Hernaniko gazte orri irekitako deialdia zabaltzen da. Bilera horretara, noski, aurretik bildutako taldetxo batek (azken olinpiadak antolatzen ibili ziren KOI talde motoreko zenbait kide) lehenengo zirriborroa eramaten du, nondik hasi eta plangintza nola bideratu jakiteko; baina bilera horretatik sortzen da hurrengo olinpiadetarako KOI talde motore berria eta egutegia. KOIa, beraz, herriko gazteek osatutako taldea da, eta berau arduratuko da proposatutako probak, ekintzak etab. bideragarriak diren esateaz, horretarako materiala lortzeaz, eta egitaraua ahalik eta erregularrena izan dadin KOIa arduratzen da proben gutxi gora beherako ordenaz. 500 gazte elkartzen dituen egitasmo bateko talde motore da. Halere, asteburuaren antolaketa guztia talde partehartzaileen artean banatzen da, eta ekipo bakoitzak eguneko probaren proposamena egiten du. Antolatutako probak oso desberdinak izan ohi dira, eta asteburuetan nahiz ostegun gauren batean izan daitezke.



Baina ekintzak ez dira desberdinak izaten kirol mota edo esfortzu mailagatik soilik; Hernaniko Gazte Olinpiadetan sormenari ere leku handia eskaintzen zaio, eta taldeek gai honetan ere lan handia egin behar izaten dute. Par-tehartzailak euren ere geroz eta garrantzi eta dedikazio handiagoa ematen diote honi, eta aurtengo olinpiadana izan da adibidea: gazteek arlo horretan lan handia egin dute. Ikusi besterik ez zeuden, bestela, antolatutako probek indarrak edo sasoiak gain exijitzen zuten imajinarioa.

### OLINPIK NEWS, PSIKO KILLER...

Urtetik urtera berrikuntzak egoten dira eta ez bakarrik proben aldaketetan; 2010eko jokoetan, generazio berriko aurrenekoak izanik, probetan eta antolaketan zentratu zen programa; 2012koetan *Olinpik News* proiektu komunikatiboa sortu zen, espresuki Hernaniko Olinpiaden jarraipena egin eta sarean zabaltzeko; eta 2014ko hauetan, *Olinpik News topatu.infok* sareratzaz gain Hamaika Telebistak bere programazioan sartu du. Gainera, *Psiko Killer* jokua izan da protagonista olinpiadetan zehar (talde bakoitzak beste taldeetako bost partaide hil behar zituen proba desberdinen bitartez).

Pixkanaka, ikusten denez, "O gripea" zabalduz doa, eta antolatzaileek azpimarratzen dute geroz eta espazio gehiago sortu nahi direla, desberdinak, gazte bakoitzak olinpiadetan ere bere lekua bilatu dezan. Grabazio lanak, erreportariak, gidoiak etab. topatu daitezke *Olinpik News*-en esaterako, antolaketaren tripetan ibili nahi izanez gero KOLA egokia izan liteke, eta zirikatzailea bazara Psiko Killer bezalako jokoetan izan dezakezu zure lekua. Proposamen guztiek dute bere lekua.

### AURRENEKO OLINPIADAK 80. HAMARKADAN.

Hernaniko lehenengo gazte olinpiadak 1988an antolatu ziren, baina hauek ez zuten jarraipenik izan hamar urte pasa arte. 1998. urtean itzuli ziren jokoak herriko kaleetara, generazio berri batekin, baina 1999an bigarren olinpiadak egitera zihoazela herriko zenbait gazteren kontrako sarekada batek zapuztu zituen asmoak. 2009an Gazte Asanbladan hasi ziren bide honetan mugimenduak berriz ere. Partaide batzuk 1998ko azken olinpiada haiek gogoratzeko gazteegiak baziren ere, asanbladako zaharrenek bazuten oroitzapenik; eta aurreko generazioetan antolatzen ibilitako zenbait gazterekin hasi ziren harremanak. Asanbladatik asanbladara, pausoz pauso, bideratzen hasi ziren hirugarren generaziokoak izango ziren olinpiadak, eta 2010eko martxotik ekainera bitarte egiteko aukera ikusi zen. Baina erabakiak, aurretik esan bezala, ez dira talde txikian hartzen, eta beraz, herriko gazte guztiei zabaldutako deialdia egin zen, proposamena bota eta antolaketa martxan jartzeko.

Espero ezinezkoa izan zen gazteek emandako erantzuna eta jarritako ilusioa. Beraz, talde bakoitzetik bozeramaille bat aukeratu eta ekin zitzaion programa prestatzeari: 30 bat talde osatu ziren guztira, eta horietatik zenbaitek proba egunak prestatzeko konpromisoa hartu zuen.

Prestaketa handia suposatzen dute olinpiadek, baina 2010ekoetan, aurtengoetan bezalaxe, erantzuna ematen dute emaitzek. 2015a deskantsurako urtea izango da jokoen aldetik, herriko gazteen erronka da orain, ordea, parentesi honetan harremanak mantentzea eta olinpiadetan sortzen den indar metaketa beste arlo batzuetara bideratzea.